

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Antzinako Musikaren Asterako abonamenduak abuztuaren 22ra arte egongo dira salgai online

Jaialdia irailaren 1ean hasiko da, munduko ahots ganbera-talde onenetako batekin, The Hilliad Ensemblerekin, alegia

Viernes, 08 de agosto de 2014

[Lizarrako Antzinako Musikaren 45.](#)

[Asterako](#) abonamenduak abuztuaren 22ra arte egongo dira salgai. Interesa izanez gero, [internet](#) bidez erosteko moduan egongo dira, web-gune honetan: www.culturainavarra.es.

Abonamendu osoarekin sei kontzertu ikus daitezke, 95 euroren truke; eta abonamendu erdiarekin hiru kontzertu, 54 euroren truke.

Lizarrako Antzinako Musikaren Astea Europan interpretatzen den Erdi Aroko, Errenazimenduko eta Barrokoko musikaren erreferente nazionala da.

Nafarroako Gobernuak antolatzen du, eta 45. edizioa irailaren 1ean hasiko da, munduko ahots ganbera-

talde onenetako batekin, *The Hilliad Ensemble* taldearekin, alegia. Izan ere, 40 urtean arrakastaz arrakasta ibili ondoren, agurtzeko bira bat antolatu dute eta Lizarrara etorriko dira. Haien ondoren, antzinako musika interpretatzen punta-puntakoak diren beste lau talderen kontzertuak izango ditugu entzungai, *Les Talens Lyriques*, *La Risonanza*, *La Ritirata* eta *Gli Incogniti*, hain zuzen ere, eta haiekin batera *Nafarroako Ganbera Abesbatza*.

Kontzertuez gain, beste hainbat jarduera ere antolatu dira: dantza barrokoari buruzko tailerra, Nafarroako antzinako musikari eta Erdi Aroko musika-tresnei buruzko hitzaldiak, zinema-ziklo bat, kaleko musika- eta dantza-ekitaldiak eta familientzako jarduera pedagogiko bat.



Jaialdiko kartela.